

Irakaslearen izen jatorrizkoa ANDONE dogu. Bosgarren mallako ikasgelaren arduraduna da ta ikasturteko asierako egunean neska mutikoak agurtuten ebazan guzur baten bidez. Danak maite ebazala neurri bardiñean esatea ez zan zuzena, begi aurrean egoan Kepa mutikoa berezia zalako.

Joandako ikasturtea zear konturatu zan Kepa ez zala lagunarteko ona, jantzi baldarraz jazten zala eta garbiketa on baten bearrean egoala. Esan bear atsegingaitza jakola. Ainbeste ze Andone irakasleak pozgiroan Keparen ikaslanak aztertzen ebazala X ta ZERO andi bategaz markaturik.

Ikastolako arduradunek ume guztien istoria betezen ebenez, Andonek be orixe egin eban Kepa mutikoagaz.

Lenengo mallako Irakasleak idatzitakoa ikusita arrituta gelditu zan: *Kepa mutiko bizkorra da ta irripar gozoduna. Ikaste lanak txukun egiten dauz, artu emonetan egokia da ta lagunkide atsegiña.*

Bigarren mallako arduradunak idatzitakoa: *Kepa ikasle ona da, lagunakin ondo datorrena, amaren gaitz osatueziñak ardura apur bat emoten dautso, etxeko giro gogortxua sorturik.*

Irugarren mallako arduradunak idatzitakoa: *Amaren eriotzak asko samindu dau, baña ondo artzen alegindu da. Aitak ez dautso jaramon andirik egiten. Egoera onetan ondorio txarrak ekarri leikioz erremedio egokirik artzen ez ba da.*

Laugarren mallako arduradunak idatzitakoa: *Kepa ikasle lagunak baña atzeratua dago, ikaslanetan epeltasuna agertzen dau. Lagun gitxi daukoz eta nozbeinka lo dagi ikastolan.*

Andone Irakasleak ikusi eban arazoa ta min eutson. Geienbat ikasleek Gabon-saria sekulako ontasunez ekeñi eutsoenean. Kepak luzatu eutson zakarontzitik ataratako paper oritzar batean biribilduta. Lotsaz edegi eban erdi barrez egozan ikasleen aurrean. Eskubitorreko eztaixu ta erdi betetako usai gozodun ontzixu bat gordetzen ebala.

Ixilduazi ebazan umeen irripar burlekoiak eskuartean eukezan gauzak janzterakoan. Iñoz egin eutsoen sari ederrena omen zalako.

Ikastolatik etxerantza urten baño lenago auxe esa ei eutson: *Andone andereño, gaur nire ama zanak legez usain gozoa zabaltzen dozu.* Kepak alde eginda gero Andonek zati luze batez negasamurtuari emon eutson.



Arrezkeroz matematika gitxiago, irakurtaldi gitxiago, idazkera gitxiago jardun eta eziketa aberatsagoa egiten alegindu zan. Batez be arretatsuago artu eban Keparen eziketa. Berakin egiten eban lanaren einean Kepak aurrera egiten eban gero ta azkarrago.

Ikasturtea amaitzerako Kepak ikasle zintzoen artean egotea lortu eban.

Benetan autortu bearra ikasturte barriaren lenengo egunean esandakoa guzurra ez, baño egia biurtu zan, Kepa *kutunen* artean aukeraturik egoalako.

Ikasturtea amaitu osteko egun baten etxeko ate azpian Kepak idatzitako gutuntxu bat eskuratu eban Andonek, esanaz bera izan zala iñoiz izandako Iralakaslerik onena. Sei urte geroago beste gutun bat bialdu eutson Kepak esanaz Ikastegi Nausian amaitu ebala Ikaste sailkapenetakoa ikasleen artean irugarren kokalekun. Irakasleen artean onentxutzat estimatuz.

Lau urte geroago barriro be eskuratu eban Keparen gutuna jakienerazten Ikastetxeko lan zailak amaitu ta gorengo notak lortu ebazala. Baita autortuz oiñoizko Irakaslerik onentxuentzat estimatzen ebala.

Lau urte geroago gutun barri bat eskuratu eban Andonek Keparen aldetik autortuz erriak bisitatzeko gogoia bete ebala ta *Osasungintzako Dotorea* lez izenpegaz.

Ez dogu amaitu oraindik Keparen Isteria. Ara beste barri pozgari bat emoten dautsola Kepak bere Irakasle Andoneri. Alegia Neska batekin maite mindu zala, beronekin ezkontzeko asmoa arturik. Aita il ostean oitura dan Amaren ordezeko egitea eskatsen eutsola.

Baietz erantzun eutson, pozarren, eta alantxe apain-apain jantzita agertu zan ANDONE Keparen ezkontza elizkizunean.

Eskumuturreko polita, ta usai gozodunez igurtzia beñola Keparen amak asken Gabonetan izandakoa.

Gozoro, maitekorrez, besarkatu ziran, Kepak xuxurka esaten eutsola Andoneri: *Eskerrik asko lagundu daustazulako nortasuna lortzen.*

Andoneren erantzuna: *Ez nik zuri, baizik zuk niri erakutsi eustasun benetako ezitzailea izaten.*

Munetxek egokitua.

